

Marra hori bat

JON SUAREZ
IÑAR SASTRE
BEÑAT RALLA
MAITE LARBURU
KAIET BENGOTXEA
PELLO GORROTXATEGI





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Marra hori bat

TESTUA: JON SUAREZ

ILUSTRAZIOAK: KAIET BENGOTXEA

MUSIKA EGILEA: BEÑAT RALLA

PIANOA: IÑAR SASTRE

AHOTSA: MAITE LARBURU

GRABAKETA, NAHASKETA ETA MASTERIZAZIOA: PELLO GORROTXATEGI
(AIEKA ESTUDIOAK)

Beti soinean zeraman bufanda askatu nion.

Antoine de Saint-Exupéry

Marra hori bat.

Marraz ezazu orrialde honen barrenean marra hori lodi samar bat. Zuzena izan daiteke. Edo uhindua, haizeak astinduko balu bezala. Zuk nahiago duzuna.

Eta margo eta tresnarik eskura ez baldin badaukazu, irudika ezazu. Nahikoa izango da.

Marra hori bat.

Izan daiteke sanlorentzo gauean izar uxu galduaren lorratza.

Izan daiteke sorginaren kapela hegal-zabal eta puntadunaren zinta.

Izan daiteke puntua egiteko aitonak erabiltzen duen artilea.

Izan daiteke, irakurle edo entzule, zure artelanean pintzelkada.

Izan daiteke, izan daiteke, izan daiteke.

Izan daiteke berritzen ari diren errepide ertzean marra margotu berria.

Izan daiteke luparen azpian printze txikiaren ile urre koloreko bat.

Marraz ezazu marra hori lodi samar bat

Baina da...

bufanda hori bat;

da... bufanda horia.

Horixe da nire begietara, nire bihotzean.

Zazpi lihazki dituen bufanda.

Zazpi lihazki dituena, zazpi.

Bufanda bidaiaria,

zazpi planeta ezagutu dituen bufanda horia,

zazpi lihazki dituena, zazpi.

Eta lihazki bakoitzak jaso du,

jaso,

jaso eta josi,

hainbat kontu.

Zazpi planeta, zazpi lihazki, hamaika kontu.

Printze txiki bidaiari baten bufanda horia baita hau,

zazpi lihazki dituena,

eta bakoitzean hamaika kontu.



Bufanda horia B 612 asteroidean bizi zen. Bertan belar onak eta belar txarrak zeuden, eta baobab haziak nonahi, eta hiru sumendi txiki-txiki –itzalita bat –, eta arrosa bat. Eseri eta bertatik ilunabarrak ikusteko aulki bat ere bazegoen.

B 612 *asteroidea* 325, 326, 327, 328, 329 eta 330 *asteroideen eskualdean* zegoen. Beraz, *zeregin bat* edukitzearren, eta *zerbait ikaste aldera*, *haiek bisitatzen* hasi zen bufanda horia; izan ere hango eta haragoko kontu zahar eta berriak entzun nahi baitzituen.

Hegazti basati batzuen migrazioaz baliatu, eta abiatu egin zen bufanda horia printze txikiaren lepoan biribilkatuta.

325 asteroidea

Lehenengoan errege bat bizi zen. Purpuraz eta erbinude zuriaren larruz jantzirik, errege aulki xume eta, hala ere, miresgarri batean eserita zegoen.

Bertan erregeak printze txikiarekin hitz egin zuen. Gauza jakina da hori.

Eta bertan erregeak bufanda horiarekin ere hitz egin zuen. Inoiz inork, gaur arte, halakorik kontatu ez badu ere.

—Har ezazu jostorratz gorri hau. Onar ezazu. Zurekin eramateko agintzen dizut —esan zion erregeak bufanda horiari.

Eta lihazki batean lotu zion jostorratza, jostorratz gorria, inoiz inork, gaur arte, halakorik kontatu ez badu ere. Eta jarraitu zuen erregeak:

—Egunen batean akaso, han... orratzontzia irekiko duzu. Asko dute entzuteko, eta josteko, erregeren aurrean aharrausi egiten dutenek. Baita egiten ez dutenek ere.

Eta, pentsakor, abiatu egin zen bufanda horia.

ANE

Ane, ortzadarrari eskatu diot zure bidera irteteko gaur.

Zaldiko-maldiko bati eskatu diot zure urtebetetze-festara joateko gaur hamaika puxika koloretako aldean hartuta.

Ilargiari eskatu diot bete-bete eginda gaurko gaua zuretzat argitzeko.

Loto-lore zuri bati eskatu diot zure eskuan ireki dadila gaur.

Baina ezin dutela esan didate, hurrengo batean izango dituzula zure; gaur sortalde urruneko hareazko herrixka batean egon behar dutela izenik ez duen ume baten urtebetetzean.



Baietz esan diet, baietz, jakina. Hala behar duela izan.

Eta basora joan naiz eta hogeita zortzi hazi bildu ditut, eta landatu mazela goxo, eguzkitsu batean. Zuretzat. Hala, hogeita zortzi zuhaitz izango dituzu. Beste egun batean esango dizut non diren. Eta izen bat eman ahal izango diozu, maitasunez aukeratua, hogeita zortzi zuhaitzeko baso berri horri, zure basoari.

Halaxe egin dute ortzadarrak, zaldiko-maldikoak, ilbeteak eta loto-loreak ere bai; izen bat eman diote, maitasunez aukeratua, sortalde urruneko hareazko herrixka batean orain izena baduen ume bati, zure izena, Ane.

326 asteroidea

Bigarren planetan harroxko bat bizi zen.

Bertan harroxkoak printze txikiarekin hitz egin zuen. Gauza jakina da hori.

Bertan harroxkoak bufanda horiarekin hitz egin zuen, bai horixe. Baina inoiz inork, gaur arte, ez du halakorik kontatu.

Halaxe esan zion harroxkoak bufanda horiari:

–Hartzazu jostorratz hau. Miresgarria da oso jostorratz laranja hau. Eraman ezazu zurekin. Beharbada egunen batean, han... orratzontzia irekiko duzu. Asko baitira entzuteko eta josteko beharra dutenak. Asko dira txaloen beharra dutenak. Eta baita txalorik behar ez dutenak ere. Asko bakarrik sentitzen direnak, asko bakarrik sentitzen ez direnak.

Eta lihazki batean lotu zion jostorratza, bigarrena, jostorratz laranja, inoiz inork, gaur arte, halakorik kontatu ez badu ere.

Pentsakor, abiatu egin zen bufanda horia.

ZERGATIK DU BETI MILA ETA BATGARREN EURI-TANTAK SOINU EZBERDINA?

Txio! Txantxangorri bat. *Zenbat gerezi sartzen dira irribarre eta erdian?*

Txio-txio! Txantxangorri bi. *Nora joaten dira lotara ametsak esnatzen garenean?*

Txio-txio-txio! Hiru txantxangorri, lau, bost, sei... *Nola atera daitezke ehun eta zazpi muxu amonaren titaretik?*

Hamaika txantxangorri txioka, hamaika txio-txio-txioka. Hamaika txantxangorri alai eta jostari, txiotxiolari, zuri, maitagarri laztan, zuri txioka, zuri galdezka. Txio eta txio. *Zein koloretan egiten dute irrist ostadarrean pailazoen malkoek? Non biltzen dira itzalak egun lainotuetan?*

Txio-txioka galdezka, barrezka, jostari, multzoan zuri galdera eta itaun, maitagarri laztan. *Bitxilorearen zenbatgarren petaloak kontatu dizu itsas-izarren sekretu gordea? Non ezkututzen dira oihartzunik gabeko hotsak hamabietatik hamabiak eta laurdenera?*

Galde-galdezka, txio eta itaun, hamaika txantxangor... Ez! Txantxanberdea da bat! Eta ezin du. Ez daki, ez du asmatzen, maitagarri laztan, asmatzen ez. Txiorik ez txantxanberdeak, galderarik ez zuri txantxanberdeak. Dena malko, dena beldur, ez du asmatzen, ezin du. Ezin txantxanberdeak.

Eta, maitagarri laztan, jarri dituzu zure begiak harenetan, eta egin diozu txio. Jarri dituzu zure eskuak haren sorbaldetan, eta esan diozu txio. Eta zure hego garden ederrez egin diozu laztan mokoan. Eman diozu muxu bekokian eta txio esan, txio behin eta berriz, horrela eta honela, txio.

Eta joan dira lotara txantxangorriak, ilargia lagun, lotara hontz jaunaren basora, lotara txantxangorrien zuhaitzera. Eta txantxanberdea zurekin da, zurekin duzu, maitagarri laztan. Txio-txioka zu hari, hari zu txioka-txio. Eta txantxanberdeak jarri ditu begiak zureetan, ireki du amiñitxo bat mokoan eta, dardaraz, esan dizu, galdetu dizu, itaundu: *Txio?*



Eta irribarre egin diozu, zabal; besoetan hartu duzu, estu... Eraman duzu hontz jaunaren basora lotara, txantxangorrien zuhaitzera lotara. Eta han da orain txantxangor... Ez! Txantxanberdea da! Eta jarri da goreneko adaburuan, ireki du amiñitxo bat mokoan eta, dardaraz, esan die lagunei, galdetu: *Txio-txio? Nola sartu sagasti bat, nola sartu, nola, intxaur oskol erdian?*

327 asteroidea

Hurrengo planetan edale bat bizi zen. Ikustaldi hau oso laburra gertatu zen, baina malenkonia handia sortu zion printze txikiari.

Bertan edaleak printze txikiarekin hitz egin zuen. Gauza jakina da hori.

Bertan, bai, edaleak bufanda horiarekin ere hitz egin zuen. Inoiz inork, gaur arte, halakorik kontatu ez badu ere.

—Neure buruaz lotsatuta nago —esan zion edaleak bufanda horiari—. Horregatik eskatzen dizut eramateko zurekin, mesedez, jostorratz hau. Horia da, zure kolorekoa. Apenas nabarituko den; ez zaitu lotsaraziko.

Eta lihazki batean lotu zion hirugarren jostorratz bat, horia, inoiz inork, gaur arte, halakorik kontatu ez badu ere. Eta jarraitu zuen ondoren:


—Egunen batean han... batek daki, orratzontzia irekiko duzu. Asko dute entzuteko, eta josteko...

—Han? Non? —eten zion bufanda horiak.


—Han! Nork jakin. Asko dute entzuteko beren jardunaz harro ez daudenek, basoan bidea bilatu eta aurrera egiten ausartzen ez direnek...

Eta, pentsakor, abiatu egin zen bufanda horia.

MAGAL-MAGALEAN



Bada mendi handi-handi bat
baso zabal-zabal bat duena.



Bada baso zabal-zabal bat
pago eder-eder bat duena.




Bada pago eder-eder bat
enbor sendo-sendo bat duena.




Bada enbor sendo-sendo bat
adar luze-luze bat duena.



Bada adar luze-luze bat
adaxka malgu-malgu bat duena.




Bada adaxka malgu-malgu bat
hosto samur-samur bat duena.



Bada hosto samur-samur bat
ihintz-tanta txiki-txiki bat duena.



Bada ihintz-tanta txiki-txiki bat
magal-magalean ilbetea duena,
dena zilar, dena distira,
magal-magalean.



Ez du ilargi poxpolinak
ispilu goxoagorik.
Ez du tantatxo pinpirinak
soineko politagorik
mendi handi-handi baten
magal-magalean...

328 asteroidea

Laugarren planeta negozio gizonarena zen. Eta hain zegoen lanpeturik, ez baitzuen burua jaso ere egin printze txikia heldu zenean.

Bertan negozio gizonak printze txikiarekin hitz egin zuen. Gauza jakina da hori.

Bertan, baina, negozio gizonak bufanda horiarekin ere hitz egin zuen. Inoiz inork, gaur arte, halakorik kontatu ez duen arren.

—Bostehun eta bat milioi seiehun eta hogeita bi mila zazpiehun eta hogeita hamaika. Horiek dira dauzkadan izarrak. Tira, eta behin batean, duela hogeita bi urte, liztor batek hemen utzi zuen jostorratz berde bat ere badaukat —esan zuen haserre antzean. Tiradera bat ireki eta jostorratza hartu zuen hatz lodia eta erakuslea erabiliz.

—Beste jostorratz bat... —esan zuen bufanda horiak—, laugarrena da hau.

—Hartu, zurea da. Zuri emateko esan zidan liztorrak. Beharko duzula han, zoazen lekuan...

—Han, non? Nora noan ez dakit-eta.

—“Han” esan zuen liztorrak, besterik ez —erantzun negozio gizonak—. Eta orratzontzia irekitzen duzunean beharko duzula ere esan zuen. Gauza txikien handitasunaz hitz egin zuen. Auskalo, ez nion gauza handirik ulertu, izarrak zenbatzen ari nintzen... Eramazu. Eramazu eta utz nazazu bakean. Dauzkadan izarrak berriz ere zenbatu behar ditut.

Eta beste lihazki batean lotu zion jostorratza, jostorratz berdea, gaur arte, inoiz inork halakorik kontatu ez badu ere. Eta berriz ekin zion:

—Bat, bi, eta beste bi, lau...

Eta, pentsakor, abiatu egin zen bufanda horia.

AZKURA

Utzidazu begietara begiratzen

azkura ematen baitit horrek tripan.

Begiradazu begietara, begiratu,

hazka egiten baitit horrek tripan.

HAZITXOA

Begiraiozu harlauza horri.

Ez; begiratu harlauza horren zirrikituari.

Ikusten duzu?

Ikusten duzu zirrikituan hazitxoa?

Haziak hasi nahi du, hazi;

hazi nahi du haziak.

Eta ernatu.

Ernatu eta loratu nahi du.

Loratu hazitxoak.

Begiraiozu egunero.

Egunero haziari, hazitxoari.

Begiratu.

Eta zaindu.

Zaindu hazitxoa.

Hesitxo bat jarri beharko diozu agian;

inguruan hesitxoa hazitxoari.

Eta ureztatu akaso noizean behin;

edo goizean behin, beharbada.

Eta ikusiko duzu ernatzen,

hazten hazitxoa.

Bihar igual,

edo etzi bestela.

Kimatu egingo duzu, eta txertatu.

Ongarria emango diozu alpakazko koilaratxoaz.

Eta lurra harrotu, nahikorik balu.

Eta ez badu, emaiizu;

lurra.

Eta argia.

Argia ere beharko du-eta.

Ez gero zapaldu zirrikitu;

harlauzaren zirrikitu.

...

Harlauzaren zirrikitu!

Hara, deskalabrua!

Zozoak eraman du hazitxo!

MUNDUKO GAUZARIK EDERRENA

Munduko gauzarik ederrena da,
eta ilargikoa...

Belar gozozko zelaian etzan
eta bitxiloreen zurrumurrua marraztea.

Gauaren isilean izarapean bil-bil egin
eta izarrei musika idaztea.

Plazako bankuan zutitu
eta sarearekin euri-tantak harrapatzea.

Eskularru bakarrean hamar hatz sartu

–norberarenak bost–
eta txorrotxioei hegoak oparitzea.


Tira, hori guztia batean delako,

–eta gehiago–
munduko gauzarik ederrena da,
eta ilargikoa,
zure laguna izatea.

Hori da munduko gauzarik ederrena,
eta ilargikoa.

EGIZU LO, LAZTANA

Logalez zaude, laztana;
logalez, ene txikia.
Altxor kuttun enea,
elur-lili guria.
Egizu lolo goxo,
maindire arteko desira maitia.
Lotxo, lotxo, lo,
kunkun lolo kuttuna,
egizu lolo goxo, begion argia.



Laztan bat eta laztan bi, bolon bolotxo,
kanpoan ilun da, otsoa gosezto.
Zaude, ilbete-dirdira, binbolo banbolo lo;

gauaren magalean, kulunka eta muxu,

nik zaitut gordeko, nik ardura osoz.

Obabatxu enea,

ttuntturrin berde, masusta.

Laster da egun berria;

argi-txintak, hara!, joko kox-kox...

Loa lo lili lolo lue,

egizu lo, run kuttun kuttuna.

Logalez zaude, laztana;

logalez, ene txikia.

Egizu lolo goxo, ene zergatia,

lo, lo, lo, ene zergatia,

egizu lo... lo... lo...

Lo-kanta entzun:

<https://youtu.be/BmbFcMWlOUo>

-Musika egilea:

Beñat Ralla Yusta.

-Pianoa:

Iñar Sastre Lopetegi.

-Ahotsa:

Maite Larburu Garmendia.

-Grabaketa, nahasketa eta masterizazioa:

Pello Gorrotxategi Oiartzabal (Aieka estudioak).

ARGI BAT

Amona joan egin da
eta egunsentian
Bazenbeingo lurraldean
musu eman diote elkarri
eguzkiak eta ilargiak,
musu goxo gozoa.
Eta musua lili txiki batez erditu da.
Zazpi petalo izan liliak,
zazpi petalo zuri.
Bi zuretzat dira, ama; bat, bi...
Bi, aita, zuretzat; hiru, lau...
Bi dituzu zuk, Hartz Txiki kuttuna; bost, sei...
Nik bildu dut bat; zazpi!
Eta amonari eskaini diot.
Bazenbeingo lurraldean
bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi!
Musua lili txiki batez erditu da.
Zeruan, diz-diz, argi bat piztu da.

JAIO DA!

Amarengandik

ekia jaio:

haurtxoa sortaldetik.

TAUPAK

Nire bihotza

Taupa-taupa

Taupaka ari

Zure bihotza

Taupaka

Taupa-taupa dabilelako

Taupa-taupa dabilelako

Taupaka

Nire bihotza

Taupaka ari

Taupa-taupa

Zure bihotza

Ziurrenik poema hau, lerroz-lerro, goitik behera irakurriko duzu
baina
poema hau, lerroz-lerro, behetik gora ere irakur dezakezu.

ELENE IZUKOR

–Hara, hara, hara; armiarma, ama!

–Ene, ene, ene; erne, Elene, erne!

–Intziri eta irrintzi, izuti zu eta ni.

–Ixo, lo, ixo; egizu lo, goxo-goxo.

–Aizu, usu, ama, emadazu muxu.

–Eeiii... pa, pott, mua...

(...)

–A, e, i, o, u, poz-pozik gaude gu,
amatxok eta biok beldurrik ez duguuuuu...

KONTATU, AITA

Ipuin kontalari,
andereñoak zapia darabil,
–borobil, pil-pil–
dio: “Umeak, lurrean biribil”.
Andereñoa... ahoa bete ipuin,
umeak... ahoa bete hortz.
Andereñoa, sudur gorri;
biribilean, Txano Gorri;
amonaren bufanda kiribil.
“Badator otsoa!” Umeak bil-bil.
Andereñoa ñir-ñir, beldurrak dar-dar,
atzera begira, atean dan-dan,
a, aa, aaa, aaaa...
zapia ahora, otsoak kar-kar,
a, aa, aaa, aaaa... txiiiis!
Doministiku Jaunak otsoa hil.
Umeek kar-kar,
–borobil, pil-pil–
Sudurgorri, ai, zintz eta zintz;
Txano Gorri, jai, pozik dabil.
Eta hala bazan edo ez bazan,
bakailao, pertz,... eta perrexil.

ZUK KONTATU, NI KONTENTU

BAT, dagigun zirt edo zart.

Hara **BI**, bata zu eta bestea ni.

Bi ezkerro, **HIRU** seguru, eta hirugarrena ez da sekretu.

Bat deus ez, bi ongi, hiru aski, **LAU** sobera? Bai, zera!

Bi eta bi **BOST**, nahi luke askok.

SEI, hiruri hiru gehi.

ZAZPI, ez gabiltza gaizki.

ZORTZI, poema bete zorri.

BEDERATZI, sartu sudurrean behatz bi.

HAMAR, esku biak hatzamar.

HAMAICA, hara!, ama hika.

HAMABI, dozena erdi bi.

HAMAHIRU, amaren atzetik Maru, Moru eta Miru.

HAMALAU, zazpi egun eta zazpi gau.

Intxaurrak bost, hotsak **HAMABOST**.

HAMASEI, aurrena hamar eta hurrena sei.

HAMAZAZPI, gerezitan bi saski.

HAMAZORTZI, adarduna ote Ortzi?

HEMERETZI, hamazazpian etzi.

Hiru hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, batekin **HOGEI**.

HOGEITA BAT, berandu ibili naiz bart.

HOGEITA BI, emaizkidazu beste bi.

HOGEITA TRES, orain ere banabil aldebres.

Ipar euria, **HOGEITA LAU** orduko euria.

HOGEITA BOST, kokotean klost.

HOGEITA SEI, mojek “gonaluze” apaizei.

HOGEITA ZAZPI, honekin badugu aski.

329 asteroidea

Bosgarren planeta oso harrigarria zen. Guztietan txikiena bera zen. Apenas zegoen tokirik farol eta farolari batentzat.

Bertan printze txikiarekin hitz egin zuen farolariak, gauza jakina da hori.

Inoiz inork ez baitu kontatu, ez da, ordea, gaur arte jakin bufanda horiarekin ere hitz egin zuela farolariak.

Eta farola piztu eta itzaltzeari lipar batez ere utzi gabe, halaxe esan zion bufanda horiari:

–Izango da han ere...

–Non, baina? –eten zion bufanda horiak haserre ia.

Ezer entzun izan ez balu bezala eta lanari temati lotuta, errepikatu zuen farolariak:

–Izango da han ere gauzak ulertzen ez dituenik, baita gaizki ulertzen dituenik eta guztiguztia beti ondo ulertzen duela uste duenik. Eraman ezazu jostorratz urdin hau, farolaren argia du. Egunen batean orratzontzia irekiko duzu eta akaso norbaitez arduratu beharra izango duzu, edo nahia... ondo etorriko zaizu argi hau. Han asko dute entzuteko, asko dute josteko.

Eta, gaur arte inoiz inork halakorik kontatu ez duen arren, farolariak jostorratz urdina lotu zion lihazki batean bufanda horiari, azkar, presaka.

Bufanda horia, ikusirik planeta txiki hartan ez zuela leku askorik ezta ere farolariak astirik, pentsakor, abiatu egin zen.

TRIPAKO MINA

Octopus

Beldurra dizut, Octopus.

Dardara eragiten didazu,

tripako mina,

botagura.

Eta egunero da berdin,

egunero.

Gorroto ditut astelehenak

eta astearteak

eta asteazkenak.

Tripako mina.

Eta ez dakit zergatik,

ez dakit, Octopus.

Zergatik?

Zergatik ni?

Gorroto ditut ostegunak

gorroto ostiralak.

Beti ni,

beti ni,

beti, egunero.

Begi horiek niri begira...

Zure begiradaren beldur beti ni.

Beldurra dizut, Octopus.

Ez dut eskolara joan nahi;

tripako mina dut.

Nemo

Nemo du izena.

Ez du inoiz tripako minik.

Berriki etorri da eskolara Nemo.

Duela hamar bat tripako min.

Itsasoaren beste alde batetik.

Itsaspekoz!

Nautilus du izena.

Hala esan dit Nemok: Nautilus itsaspekoa!

Eta berarekin eraman nau.

Oi, Nemo! Ai, Nautilus!

Eskutik helduta eraman nau.

Ikusi ditugu itsas izar jostari alaiak.

Nemoren besoa nire sorbaldan, nirea berean.

Eta begiratu diogu ur azpitik urrezko ilargiari.

Nemoren irria nire begietan, nirea bereetan.

Eta inguratu gaituzte itsas zaldiek;

milaka ziren. Bat eginda, milaka.

Eta eman dit Nemok musu bat, pa!

Hau lotsa!

Eta bi berari nik, pa eta ma!

Hau adorea!



Eta esan dit, esan dit Nemok:

–Zurea da lema! Nautilus zure aginduetara!

Nautilus

Maite dut Nemo. Eta Nautilus.

Maite-maite dut Nautilus. Eta Nemo.

Ematen dit babesa gauaren ilunean.

Ematen dit goxotasuna loaren besoetan.

Maite dut Nautilus.

Ematen dit indarra

egun-argitan

begietara

begiratzeko,

bai,

Octopus,

begietara begiratzeko

astelehenean

asteartean

asteazkenean

begiratzeko begietara.

Maite dut Nautilus, maite.

Ematen dit ausardia.

Ematen dit kemena.

Ostegunean

ostiralean.

Begiratzeko

tripako minik gabe

begietara begiratzeko,

Octopus,

zuri!

330 asteroidea

Seigarren planeta hamar bider zabalagoa gertatu zen. Liburukoteak idazten zituen agure zahar bat bizi zen bertan.

Geografoa omen zen agurea. Eta gauza asko esan zizkion printze txikiari, gauza jakina da hori.

Eta, asmatu baietz?, bufanda horiarekin ere hitz egin zuen agure zaharrak. Gaur arte inork halakorik kontatu ez badu ere.

Agure geografoak hala esan zion bufanda horiari:

–Idazten ari naizen liburukote honetan, hemen nonbaiten, orrien artean gordeta, badut zuretzako jostorratz bat.

–Beste bat –esan zuen bufanda horiak etsia hartuta bezala, lehor samar.

Ez entzunarena eginez, aurrera egin zuen agureak.

–Morea da jostorratz hau. Ziurrenik han beharko duzu.

–Han –esan zuen bufanda horiak, berriz ere lehor.

–Han badira jakintsuak, ezjakinak, jakingurak, jakin-egarriak. Egunen batean, bihar ez bada, etzi, edo etzidamu, akaso, ezin jakin edo batek daki, beharko duzu jostorratz hau.

–Han –errepikatu zuen bufanda horiak.

Eta agureak lihazki batean lotu zion jostorratza bufanda horiari. Jostorratz morea. Eta jarraitu zuen:

–Hurrengo bisitatuko duzun planetak oso izen ona du, bai, baina asko dute entzuteko, eta josteko...

Bufanda horia, gogor antzean jokatu izanaz damututa baina gogaituta, buruaz baiezkoa eginda, pentsakor, abiatu egin zen.



Izenburua bukaeran du ipuin honek. Eta irakurtzen ari zaren lehen bi lerro hauek ipuin honetan idatzi ditudan azken bi lerroak dira.

Baina, hala ere, ipuin hau ez da atzekoz aurrera idatzitakoa. Ez da alderantziz irakurtzekoa.

Batzuetan halaxe suertatzen dira gauzak idazten duzunean. Eta baliteke ez ondo asmatzea. Eta egingo dituzu orduan zirriborroak, edo ezabatuko dituzu letrak, hitzak, esaldiak, eta are lerro asko ere; zergatik ez? Edo, okerreanean, paper-pilota egin eta botako duzu saskira, pilota, papera, ipuina. Edo nahas-mahas idatziko dituzu bururatzen zaizkizun kontuak, mahas-nahas ipuina, hankaz gora eta buruz behera, edota ez hanka eta ez buru...

Orduan, agian, berriz hasiko zara, nahi baldin baduzu, jakina; hori du ona ipuinak idazteak. Edo poematxoak; ez baitu zertan ipuina izan. Sukalde-errezeta ere izan daiteke; txokolatezko bizkotxoarena, adibidez. Edo letra-zoparena. Ez gero gatza ahaztu!

Baina azkenean ipuina baldin bada idazten duzuna... tira, demagun tximeleta bat asmatu duzula. Esan nahi dut: irudikatu. Tximeleta izan daiteke laranja, edo horia, edo urdina. Eta izan ditzake pita beltz txikiak hegoetan, edo pita zuri handiak. Hori zuk erabaki dezakezu. Horregatik eta horretarako ari zara ipuina idazten. Zu.

Eta erabaki dezakezu mitxoleta bakarti batean pausatu dela zure tximeleta. Goi lautadako galsoro zabal-zabal baten erdian, esate baterako. Ekialdean, eguzkia irteten den aldean, gari-sail batean. Batek daki, gari-saila Elustondo jaunarena izan daiteke.

Eta, hara! Mitxoletan bazen pinpilinpauxa bat. Eta tximeleta eta pinpilinpauxa hasi dira dantzan, bi-biak hegoak pega-pega eginda, nahas-mahaskerian, zure ipuina bezala.

Eta, ez du orain arte inork ikusi, baina mitxoletaren petalo baten azpian bada zomorrotxo txiki-txiki bat, beltza bera, marigorringoarengandik ihesi, ezkutatuta. Baina orain marigorringoa ez dator harira. Eta zomorrotxo txiki-txikia ondo dago ezkutatuta.

Eta zuk irudikatu duzu Elustondo jauna mitxoletari begira. Eta pentsatu du Elustondo jaunak:

*Tximeleta bi
mitxoletan dantzari.
Kolare festa.*

Edo, beharbada, ez. Ziurrenik Elustondo jauna traktorean baitoa mendirako bidean, hara gora, neguko beheko sutarako egur bila.

Eta hori dena idazten ari zarela, ikusi duzu hurbiltzen behia.

Eta behiak... plost!

Eta azpian geratu da mitxoleta. Eta tximeleta-pinpilinpauxa dantzariak. Eta zomorrotxo txiki-txikia, beltza bera.

Eta zuk erabakiko duzu ipuina bukatu den. Edo marigorringoa etorri den, edo kakalardo pilotagilea. Edo Elustondo jauna akaso. Eta traktorearekin zapaldu duen kaka piloa eta... Baina, agian, hori beste kontu bat izango da. Edo ez.

Eta beste kontu bat izan edo izan ez, zuk ipuina idatziko duzu (txokolatezko bizkotxoaren errezeta nahiago ez baduzu behintzat) eta idatziko duzu hasieran, edo bukaeran, kalabazarekin edo kalabazarik gabe,

IZENBURUA

Lurra

Zazpigarren planeta Lurra gertatu zen.

Gure Lur hau, bai.

Eta, hemen, Lurrean, hatza bezain suge mehe hori bat ikusi zuen bufanda horiak,

eta hiru petalodun lore kaskar bat,

baita bost mila arrosa baino gehiago ere,

eta azeri bat.

Gizakiok oso toki gutxi hartzen ei dugu Lurraren gainean, baina...

bidaiariak zenbatzen zituen trenbidezain bat,

inoiz egarririk ez zuen merkatari bat

eta hegazkinlari bat ere

ikusi zituen bufanda horiak Lurrean.

Eta ikusi zituen izaki haien guztien bihotz urratuak, begirada goibelak eta masail gazituak.

Eta gogoan du bufanda horiak harresi zahar baten hondakinen goi aldetik bigarren goz ere ikusi zuela suge horia. Eta nola desagertu zen harri artean sugea. Eta nola jarraian hegazkinlaria agertu zen berriro, printze txikiaren albora.

Eta gogoan du halaber bat-batean basamortuko hareatan ikusi zuela bere burua bufanda horiak. Beti printze txikiaren soinean egondakoa hondarretan zegoen orain, hondarretan bufanda horia.

Agur, ene printzea! Ene printze txikia.

Eta gogoan du biharamunean urruntzen ikusi zituela printze txikia eta hegazkinlaria. Eta dirdai hori bat ere gogoan du. Printze txikiaren orkatilaren ondoan dirdai hori bat.

Agur, ene printze maitea!

Eta hortik aurrerakoa amets bat bezala gogoratzen du bufanda horiak, amets bat zeinetan behinolako amona baten orratzontzia ikusten duen lausotan.

Eta hartu du bufanda horiak amona xaharraren orratzontzitik jostorratz bat, jostorratz gorri bat. Eta begiratu du haren zuloan barna eta ikusi du, lainotan ikusi, sortalde urruneko hareazko herrixka batean izenik gabeko neskabila bat.

Eta, harrituta, hartu du bigarren jostorratz bat, laranja oraingoa, eta, jostorratzaren zuloan zehar begiratuta, ikusi du bufanda horiak txantxanberde bat, mutu. Ezinean.

Eta orduan, mirarituta, atera du bufanda horiak orratzontzitik hirugarren jostorratz bat, hau horia. Eta hurbildu du jostorratzaren zuloa begira, eta ikusi du ihintz-tanta bat ilbetez jantzia.

Eta, txundituta oso, hartu du laugarren jostorratza, berdea. Eta zulotik begiratuta ikusi ditu beste hamaika gauza txiki, hamaika gauza txiki oso handiak. Ikusi ditu hazitxo bat eta bitxiloreak eta zeruan diz-diz argi txiki bat urrunean, oso urrunean, eta haurtxo jaio berri bat ere ikusi du, eta bihotz bi taupaka. Izaki ñimiño erraldoiak.

Eta, erabat zurtuta, hartu du ondoren jostorratz urdina, bosgarrena, eta ikusi du Nautilus. Pa eta ma! Baina ez du Octopus ikusi, ezkutaturik baita hau gauaren ilun beltzean.

Eta begiratu du jostorratz morearen zulotik ere bai, eta ikusi du koloretako jostorratzez jositako ortzadarra.

Eta ortzadarraren azpian da mundu oso bat, ametsetan bezala, mundu oso bat, eta han dira haurtxo bat logalez, eta beste bat negarrez eta hirugarren bat barrez, eta urrutian izarrak, izarrak, izarrak...

Eta orduan ulertu du bufanda horiak. Ulertu du zertara etorri behar zuen Lurrera. Zertara bidali duten erregeak, harroxkoak, edaleak. Zertara negozio gizonak, farolariak eta agure zaharrak. Ulertu du, jakin du bufanda horiak, kontu-kontari aritu behar dela, arituko dela, hemen, Lurrean. Kontu-kontari, izarrak eskainiz sugeei, arrosei, azeriei. Trenbidezainei, merkatariei, hegazkinlariei. Eta hurrei, hurrei, hurrei.



Eta pentsatu du,
pentsatu bufanda horiak,
berak ere,
zuk bezala, nik bezala,
atsegin duela gauez izarrei begiratzea,
eta izarrei entzutea,

bostehun milioi kaskabiloren soinua entzutea, eta kontatzea,
kontuak kontatzea, kontuak jostea.

Kontatu beharra baitago izan daitekeela, bai,
luparen azpian printze txikiaren ile urre koloreko bat,
berritzen ari diren errepide ertzean marra margotu berria,
zure artelanean pintzelkada,
puntua egiteko aitonak erabiltzen duen artilea,
sorginaren kapela hegal-zabal eta puntadunaren zinta.

Kontatu beharra baitago izan daitekeela, bai,
sanlorentzo gauean izar uxo galduaren lorratza.

Hori dena eta zuk nahi duzun guztia

izan baitaiteke

 zuk marraztutako

 marra hori bat.